

Gernika-Lumoko liburutegiak 2010erako egitaraua prestatu du

Otsailetik abendura bitartean hileko azken bariku guztietan izango dira jarduerak Udal Liburutegian.

E. URLEZAGA

Urteko egitaraua

Urtero legez, Gernika-Lumoko liburutegiak hileko azken barikuetarako egitaraua antolatu du. Otsailean hasi eta abendura arte, hortaz, hileko azken barikuetan herriko gazteenentzako jarduerak izango dira liburutegian bertan. Abenduan saio bi izango dira.

Liburutegiko arduradunek ohar bidez azaldu bezala, "parte hartu gura duenak aurretiaz eman beharko du izena. Izena emateko liburutegira gerturatu beharko dute interesatuek, edo 94-625 02 01 telefonora deitu.

Urteko egitaraua

Egitaraua ondokoa da:

JARDUERAK

- Otsailak 26. Ipuin kontalaria eta mitologiari buruzko ilustrazio tailerra.
- Martxoak 26. Musika ipuinak.
- Apirilak 30. Edurnezuri ipuina. Ostein, ilustrazio tailerra.
- Maiatzak 28. ' Espazioko istorioak ' ipuin kontalaria.
- Ekainak 25. ' Liburuetako iratxoak ' ipuin kontalaria.
- Urriak 29. Ipuin kontalaria.
- Azaroak 26. Munduko txotxongiloei buruzko ikuskizuna. Ostein, txotxongiloen tailerra.
- Abenduak 23. Gabonetako ipuinak idazteko tailerra.
- Abenduak 30. Pinotxoren istorioa kontatuko du ipuin kontalari batek. Ostein, ilustrazio tailerra.